

# ZINEMAPEAN



filmak eta dokumentalak euskaraz  
Sanz Enea kultur etxeko sotoan

Zarauzko Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailek abian jarri duten ekimena da **Zinemapean**, Argia Emanaldiak eta Filmazpit egitasmoekin elkarlanean.

Hamabostean behin, igandetan, euskarazko dokumentalak eta filmak emango ditugu Sanz Enea kultur etxeko sotoan. Euskaraz sortutako dokumentalak eta filmak edo euskarazko azpidatziak dituztenak izango dira guztiak. Sarrera doan izango da.

Euskal Herriko kultur etxe, areto, elkarte, erakunde eta gainerakoentzat udazkenean abiarazi ziren bi ekimenekin Zarauzko Udalak abiarazitako elkarlanaren ondorioa da **Zinemapean**. Izan ere, Argia Dokumentalak eta Filmazpit egitasmoak dira ekimen berri honen ardatza.

## **ARGIA DOKUMENTALAK**

*ARGIA emanaldiak* ekimena abiarazi zuen Argiak azaroan. Horren baitan, hileroko dokumental bat eskaintzen dute euskaraz edo euskarazko azpitoluekin, dokumentala eman nahi duten elkarte, kultur etxe, taberna, gaztetxe edo interesa duten guztientzat, erabat doan. “Helburua Euskal Herri osoan kalitatezko lanak zabaltzea eta euskarazko ekimenen inguruko bilguneak bultzatzea da. Proiektua irekia da eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da” nabarmendu zuten ekimenaren aurkezpenean.

Hilabete bakoitzean emango diren dokumentalak Argiak zehazten ditu, eta dokumental hori bera ematen da ekimenean parte hartzen duten herri guztietan. Hilabete bakoitzean, beraz, elkarte, kultur etxe, zine-klub, taberna edo gaztetxe guztiek lan bera emitituko dute, “horrela lan bakoitzari ahalik eta zabalpenik handiena eta bateratuena eman asmoz”.

Zarauzko kasuan, Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailek heldu diote amuari, eta hileroko emango da dokumental horietako bat, Sanz Eneako sotoan.

## FILMAZPIT

Filmazpit Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak finantzatutako ekimena da, pasa den abenduan aurkeztu zena. Zinema zabaltzea du helburu, eta Donostiako Zinemaldia, Euskadiko Filmatagia eta Tabakalerarekin batera, Donostia Kulturak kudeatzen du.

Ekimen honen baitan, *filmazpit.eu* webguneak garrantzi handia du. Filmazpit ekimenaren barruan dauden filmen katalogoa eta doako erabilerarako sortuko diren euskarazko azpidatzi guztiak daude bertan, kultur teknikari, erakunde edo norbanakoei artxiboak deskargatzeko aukera eskainiz eta, horrenbestez, irabazi asmorik gabeko proiektioak antolatu ahal izango dira. Filmazpit ekimeneko informazio osoa aurkitzeaz gain, azken urteotako zinemaldietan euskarazko azpitoluekin emandako filmen azpitoluak ere lortu daitezke webgunean.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren hitzetan, “lehentasunezko ildo da euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik”. Ildo horretan, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko Zabaltegi Perlas saileko eta Atzera Begirako saileko hainbat film euskaraz azpidatzi ziren, eta horren atzetik beste hainbat proiektu sortzen joan dira. Oraintsu, berriz, Filmazpit abiarazi dute, “etorkizunean ere jarraipena izateko bokazioz jaio den programa”. “Euskara sustatzeko konpromisoaren baitan, zinemaren inguruan izan daitezkeen proiektu berriek ere gure laguntza eta babesa jasoko dute”, nabarmendu zuen Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ekimenaren aurkezpenean. Ildo horretan kokatzen da Zarauzko Udalaren eta Filmazpiten arteko elkarlana.

· informazio osatuagoa: [filmazpit.eu](http://filmazpit.eu)

## LEHEN SEI HILABETEOTAKO EGUTEGIA

### URTARRILA:

- 29: Oroitarria. Argia Dokumentalak.

### OTSAILA:

- 12: Lucio: Argia Dokumentalak.
- 26: Pink Saris. Filmazpit.

### MARTXOA:

- 11: Sahara Maraton. Argia Dokumentalak.
- 25: My Neighbor My Killer. Filmazpit.

### APIRILA:

- 15: Haizea eta sustraiak. Argia Dokumentalak.
- 29: Paris by Night of the Living Dead. Filmazpit.

### MAIATZA:

- 13: Sagarren denbora. Argia Dokumentalak.
- 27: Armadillo. Filmazpit.

### EKAINA:

- 10: Anuken egia. Argia Dokumentalak.
- 17: Stake Land. Filmazpit.

### Saio guztien ordutegia eta lekua:

- **Ordua:** 18:30
- **Lekua:** Sanz Enea kultur etxeko sotoan

Dokumental eta film guztiei buruzko informazioa, sinopsiak eta datu teknikoak:

- [argia.com/multimedia/dokumentalak](http://argia.com/multimedia/dokumentalak)
- [filmazpit.eu](http://filmazpit.eu)



## OROITARRIA

Pertsona edo gertaera go-goangarri baten oroigarri egiten den arkitektura edo eskultura lana.

Germanen oroitarria, poliziak 1978ko Sanferminetan German hil zuten lekuan da. Botereak ahaztarazi nahi dizkigun pertsona, gertakariak eta zenbait erabaki politiko ekartzen ditu gogora.

Gertakaera itzel horiek izan zirenetik 30 urte baino gehiago pasa badira ere, oroitarri honek oraindik egun gobernatzen dutenak gogaitzen ditu.

**ZUZENDARIA**  
**Ruben Marcilla**  
**Iraupena: 46min**

EGUNA	ORDUA	LEKUA
urtarrilak 29 igandea	18:30	Sanz Enea kultur etxe sotoan

# ZINEMAPEAN

## OROITARRIA

Zuzendaria: <b>RUBEN MARCILLA</b>	Filmaren urtea: <b>2008</b>
Eguna eta ordua: <b>2012 urtarrilak 29 - 18:30</b>	Lekua: <b>Sanz Enea kultur etxeke sotoan</b>

Pertsona edo gertaera gogoangarri baten oroigarri egiten den arkitektura edo eskultura lana. Germanen oroitarria, polizia 1978ko Sanferminetan German hil zuten lekuan da. Botereak ahaztaraizi nahi dizkigun pertsona, gertakariak eta zenbait erabaki politiko ekartzan ditu gogora. Gertakiera itzel horiek izan zirenetik 30 urte baino gehiago pasa badira ere, oroitarri honek oraindik egun gobernatzen dutenak gogaitzen ditu.

### Lucio

otsailak 12 18:30

### Pink Saris

otsailak 26 18:30

### Sahara Maraton

martxoak 11 18:30

### My neighbor my killer

martxoak 25 18:30

### Haizea eta sustraiak

apirilak 15 18:30

### Paris by night of the living dead

apirilak 29 18:30

### Sagarraren denbora

maiatzak 13 18:30

### Armadillo

maiatzak 27 18:30

### Anuken egia

ekainak 10 18:30

### Stake land

ekainak 17 18:30

# ZINEMAPEAN

KULTURA  
ZARAUTZ



argia.com

FILMAZPIT